

MARTXA

Guazen, artzayak, guazen, andreak,
ekus dezagun erriya,
auxe bera da billatzen degun
erretako Donostiya.
¡Au jende ederra eta alegria!
¡au jantziyaren garbiya!
ezta ezagun mayorazkua,
ezta ere nekazariya.

ARTZAI-KANTA

Ona gaur Donostiyan
Greziyako artzayak,
urtebetetik onuntz
euskera ikasiyak:
ekusirik erriko
liburu zarretan
euskaldunak giñala
lengo denboretan.

Ona guztiyon Aita
gure Meltxor jauna,
argitasun aundiyak
eman dizkiguna:
beti zorko diyogu
berari graziya,
gizon eta andreak
euskera ikasiya.

Jakin ditugunean
zuben naigabeak,
ikaratu ez gaitu
batere bideak:
iñon gelditu gabe
sei illabetean,
gaur Donostiyan gaude
zoriyon gurean.

Euskaldunen artzeera
ekusi ta ondoan
bertan bizi izatea
daukagu gogoan:
emen ere badira
ugari artzayak,
eta urruti gabe
dauzkagu mendiyak.

Etorriko gerade
noiztik eta nora
gazta-esne zuriyak
zubei ekartzera:
guztiya izango da
garbiro egiña,
ezta eskas izango
gure alegiña.

Gure amoriyua
Euskaldunentzako
izango da firmea
sekuletarako:
erriyan ta mendiyan
nola txaboletan
gogoango ditugu
gure egunetan.

EUSKARITXOA !

Soñu eta kantakin
datoz Greziyatik
artzayak arturikan
andreak ondotik:
esanaz biyotzetik
guztiyok batian:
Donostiya *que viva*,
viva San Sebastian!

ZORTZIKOA

Donostiyan gaudela
ezin sinisturik
etxe abei begira
gaude arriturik:
zeren etorri geran
bidean aiturik
eztegula arkituko
paretak besterik.

Ekusten degu bada
Atsegiñarekin
bearra egiten dala
langille askorekin:
etxe galanta franko
aurre ederrakin,
denda, ganbara, soto
eta balkoyakin.

Gure begiyak daude
ezin asperturik
ekusten naigabeak
zaudetela azturik:
kale berri zabalak
zuzen idikirik, eta gañera asmoak
aurrerako arturik.

Konzeju-etxe ta
plaza egin ondoan
fama zabalduko da
munduban beingoan:
ez leneko denboran
eta oraingoan
onelako erririk
eztala gogoan.